

*vocal*-i erazten zayonean. Ontan ere erabaki bat on litzake. Uréngo batzarétarako utzi da.

III.—Landerétxe jaunak *Zuur-itx* batzuek irakuí dizkigu. *Euskera*-n azalduko dira.

IV.—Auréko batzaráldian, batzorde bat sortu da Iztegi-lanak gertutzeko: Batzorde ortan, Altube ordez, Olabide izango da : ta Gabonetako opor-egunetan sei edo zazpi txandaz bildu litezke.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaráldia.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean 1928'ko Ilbel-tzaren 26'an.**

Aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landerétxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea. Otoitzez asi da batzaráldia.

I.—Poz aundiz ikusten du Euskaltzaindiak, Iruñako Udalak, lendikako erabaki bat jaíaiturik, aurtén ere euskal-idazle batzaldia eragiten duela. Batzaldi ontan gai bikañak azaltzen dira, bai idazle gazteentzat bai zaíentzat, guziak ordea euskeraz idatzi beaíak Zorionak damazkio Euskaltzaindiak Iruñako Udalari ta beste Udal ta Aldundiak oírentxen ereduz balebiltz, ainbat obe.

II.—Azkue jaunak berak egindako lan bat irakuí digu, ta erderaz dakar idazkain auxe: «Neologismos formados a imitación de otras lenguas». Iztegiari dagozkion gai batzuek ongi ta ongi erakaíiz, bere lanaren oin, alemaneraz idatzitako liburu bat izan zaio: Alemanian noski eztabaitagogoíra sortu da, itz-beñiak dirala bide. Adierazten digu gañera, zer egin degun lan ontan, alemanak ere beren alderdian zer dakarten,

geyenaz bata beste onura gutxiz: oregatik dio, arlo gaitz onek beartzen gaituenez, arduraz eta begi zuzenez ibili bear degula. Bañan euskal-idazleak oju ta oju daude, itz-beñi oien eske, ezez ta aixa idatzi dezaten, erderara ezertan jo gabe.

Euskal-idazleak Euskaltzaindiari egin dioten eskaria, Eusko-Ikaskuntzaren bitartez ta joan dan udarako ikastaro motxaren ondoren auxe izan da: Euskaltzaindiak, berari dagokion nagusitasunez, soñu edo bila ditzala itz-beñi txortatxo oiek. Ortan jardun du euskaltzaindi-batzorde batek, amar egunen bitartean, ta Batzorde onen lanak oraintxe dakuskite beste euskaltzañak. Batzorde onen lanak oso-osoak izan diralako, Azkue jaunak beste euskaltzainengandik auxe iritxi nai luke: Auferantzean, bi ñla betetik bein Batzorde au bildu dedila, asitako lanak jaraitzeko. Baietz dasaiote euskaltzain geienak, Urkijo ta Lakonbe beste alde izanik. Abek diote: Ez duela Euskaltzaindiak itz-beñi oien sortzale izan bear; baizik idazle berak ta eñiak sortu ta pixtuarazi bear dituztela, idazki-lanak aufera dijoazenez ta eñiak eman litzazkenez (1)

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik otoitzez amaitu da batzañaldi auxe.

---

## **Bilbo'n, Bizkaiko Aldundi-Jauregian 1928'ko II-beltzaren 27'an.**

Auñeko agerian aipatzen diran euskaltzain eta urgazlea batzañaldira datoz ta asipeneko otoitza egin du maipuru jaunak.

---

(1) Gauza saila deritzatela, itz-beñien arazo auxe ñlabete gutxi bafu erabakitzea, au da, esku-iztegia egin liteken asti labuñean. Beren iritxiz lenbiziko, esku-iztegi onek azaldu bear luke ta gero beste ekitaldi batean, asiro ta sakonki, itz-beñi onen arazoa arlorra erakafi.